


**ELEBERRIA**

ISBN: **978-84-18252-60-0**
ORRIALDEAK: **256**
FORMATOA: **12 x 19**
PREZIOA: **17,70 €**

> **“Estatu Batuetan gertatzen ari zenaz kezkatuta idatzi nuen liburu hau. Bere itzalari ere beldur zion jende askok orduan; liburuak erretzen hasiko zirenaren mehatxua zegoen. Liburu asko apaletatik erretiratzen hasiak ziren”.**
>
> **Ray Bradbury**

**MAIATZA 2021**

# FAHRENHEIT 451

## Ray Bradbury

Itzultzailea: Nagore Tolosa

Liburu honetako protagonista, Guy Montag, suhiltzailea da. 451 zenbakiko kaskoa buruan, letoizko mangera-muturra ukabiletan, liburuak erretzea da bere lana, bere behar kuttuna. Izan ere, Montag bizi den herrialdean debekatuta dago irakurtzea. Irakurtzeak pentsatzea dakarrelako eta pentsatzeak zoriontasunik eza. Eta zoriontsua izatea derrigorrezkoa da.
Dena aldatuko da, ostera, familia antisozial bateko kide den Clarisse gaztea ezagutzen duenean. Harreman berriak inarrosirik, erre beharreko liburuak ezkutatu eta irakurtzeari ekingo dio suhiltzaileak.
Macartismo garaian idatzia eta orduan sortu berria zen *Playboy* aldizkarian atalka argitaratua, xx. mendeko distopiarik ezagunetakoa da *Fahrenheit 451*, alienatzen doan gizartea esnatzeko aldarri sutsua.

FAHRENHEIT 451: liburuetako papera su hartu eta erretzen deneko tenperatura.



**RAY BRADBURY**
(Waukewan, 1920-Los Angeles, 2012). Illinoisen jaio zen, eta gaztetan Kaliforniara bizitzera joan zen familiarekin. Unibertsitatera joateko dirurik ez zuenez, liburuak irakurriz eskolatu zen, bere kasa. Berrogeiko hamarkadan ipuinak idazteari ekin zion, eta apurka-apurka, aldizkarietan argitaratzen hasi zen.
Literatura fantastikoa, terrorezkoa eta zientzia fikziozkoa landu ditu, eta genero horien maisu bihurtu da. *Martian Chronicles* (1950) eta *Fahrenheit 451* (1953) dira haren lanik ezagunenak. Sari eta ohore ugari jaso ditu, banakako lanei eta bere ibilbide osoari esker.

**Txalapartan ere euskaraz argitaratutakoak:**










txalaparta
Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus